


20 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok dio familiaren diru-sarreretatik bizi dela

Familia 20 eta 29 urte bitarteko gazteen diru-iturririk garrantzitsuenetakoa den arren, azken lau urteotan gora egin du norberaren eta bikotekidearen dirutik bizi direla dioten gazteen proportzioak.

Euskadiko gazteak 2008 azterlanaren emaitzek 20 eta 29 urte bitarteko gazteen % 55,5en diru-iturri nagusia familia dela erakusten dute. % 28,6 norberaren diru-sarreretatik bizi dira, % 15,1 bikotekidearenetatik eta, azkenik, % 0,7 bestelako diru-iturrietatik.


Familiaren diru-sarreretatik bizi direla diotenak sakonkiago aztertuta, erdiak baino gehiagok diote bai familiaren bai norberaren diru-sarreretatik bizi direla (% 52,7k); % 47,2k ekonomia aldetik, familiaren mende bizi dira guztiz. Bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren hamar gaztetik zazpik erdizka darabiltzate bikotekidearen eta norberaren diru-sarrerak (% 76,6k) eta gainerakoak bikotekidearen diru-sarreraren mende bizi dira.

2004ko emaitzekin alderatuta, gehiago dira familiarenak ez diren diru-sarreretatik bizi diren gazteak. Hau da, % 9 jaitsi dira osotasunean edo zati batean familiaren diru-sarreretatik bizi direnak. Era berean, % 5eko igoera nabari da norberaren diru-sarreretatik bizi direnen artean eta % 3koa bikotekidearen diru-sarreretatik zati batean edo guztiz bizi direnen artean.




Iturria: Euskadiko gazteak. Gazteen Euskal Behatokia

Generoaren ikuspegitik, familia diru-iturri nagusia da bai mutilentzat bai neskentzat; izan ere, nesken erdiak baino gehiagok eta mutilen erdiak baino gehiagok dio ekonomikoki familiaren mende bizi dela erabat edo zati batean. Aldeak nabari dira norberaren eta bikotekidearen diru-sarrerei dagokienez, emakumeak hein handiagoan baitaude bikotekidearen diru-sarreraren mende gizonak baino. Norberaren diru-iturrietatik bizi diren gazteen kasuan, mutilen proportzioa garaiagoa da neskena baino.



Iturria: Euskadiko gazteak. Gazteen Euskal Behatokia

Adin-taldeei dagokienez, 20 eta 24 urte bitarteko hamar gaztetik zazpik diote familiaren diru-sarreraren mende bizi direla erabat edo zati batean. % 20,3 norberaren diru-sarreretatik bizi dira eta % 7,8 erabat edo zati batean bikotekidearen diru-sarreraren mende. Nagusien adin-taldean (25 eta 29 urte bitartekoenean), handiagoa da norberaren diru-sarreretatik (% 38,2) eta erabat edo hein batean bikotekidearen diru-sarreretatik (% 23,7) bizi direnen proportzioa familiaren diru-sarreretatik erabat edo zati batean bizi direnena baino (% 37,1).



Iturria: Euskadiko gazteak. Gazteen Euskal Behatokia

Erlazionaturiko datuen kontsulta:

20 eta 29 urte bitarteko gazteen independentzia ekonomikoari buruzko adierazle estatistikoak.

Euskadiko gazteak 2008 azterlana

Erlazionaturiko estekak:

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema

Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa soziologikoak